

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA




Jarduera honen bitartez azpiegiturei eta mugikortasunari buruzko eztabaida sustatzea nahi dugu ikastetxeetan. Horretarako material informatiboa banatuko zaie (artikuluak, albisteak). Geletan banatuta, AHT/ AZPEITIKO TRENA/ RALLYAK aztertuko dituzte ondorengo irizpideei erreparatuz:



- Azpiegitura hauek ingurumenean sortzen dituzten ondorioak: (Lurzoruaren okupazioa, gune naturaletan eragina, paisaia naturalaren aldaketa, akuiferoen suntsipena, abere-espezieak eta landare-espezieak arriskuan jartzea, espezie inbaditzaileak zabaltzea, atmosferaren kutsadura, zarata, hondakinak, energia kontsumoa, osasun arazoak, e.a.)

- Azpiegitura hauek eraikitzearen ondorio ekonomikoak (Administrazio Publikoko diruaren zati handi bat proiektu hauen bideragarritasun azterketetan eta lanak burutzean gastatzen da. Inbertsio datuak eman daitezke)



- Inbertsio hauen egokitasuna (inbertsio lehentasunen azterketa eta balorazioa: zeintzuk dira erakunde publikoen gasturako lehentasunak eta zeintzuk izan beharko lukete ikasleen ustez; herritarren proiektu alternatiboak mugikortasun alorrean)

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

- Beste era bateko ondorioak: Negatiboak: (desjabetzeak, nekazaritza munduarengan eragina, herri txikien baztertzea/hirien indartzea, herrien arteko eta eskualdeen arteko etenaldiak, istripuak, e.a.). Positiboak: mugikortasunak gizartearen bizi-kalitatea hobetu du eta zerbitzu publikoa bilakatu da.
- Azpeitiko herriarentzat azpiegitura hauen trazaduratik kanpo egotearen ondorioak honako esparruetan: industria-ekonomia, gizartea, mugikortasuna, ingurumena.
- Orain arte aplikatu diren politikak zein helburu dituzte?
- Diru-laguntza politikak zein helburu dituzte (adibidez, kotxea erosteko laguntzak zein onura sortzen dituzte?)
- Politika hauen alternatibak ba al daude eta zeintzuk dira?
- Lan-taldearen azterketa eta hausnarketaren ondorioz txosten bat sortu beharko dute power-point formatuan. Txostenaren atalak honako hauek izango dira:
 - Aldeko argudioak
 - Kontrakoak
 - Ondorioak

